

Noaia!!



Gurasoekiko komunikazioa indartu nahi du Haur Eskolak



Hondakinen birziklatze kopuruak
gora egin zuen 2005 urtean

leapandegi



Eskaintza berria

- ✓ Depilazio iraunkorra
- ✓ Radiofrekuentziaren bidez gaztetze tratamentua

Zubiaurrenea 4, USURBIL ☎ 943 361 951

Lehiaketa





Entzun! aldizkariak argitaratu dituen bi DVD hauek eskuratu nahi al dituzu? Oso erraza duzu. Galdera honi erantzun eta zozketa batean hartuko duzu parte. Zein musika talde duzu gogokoen? Erantzuna e-postaz igorri eta jasotako erantzun guztien artean Entzun! aldizkariak argitaratu dituen bi DVD hauek zozketatuko ditugu. Animo eta zorte on!

Partehartzeko azken eguna: otsailak 11.

Bidali erantzuna e-mailez erredakzioa@noaia.com.
Postaz Borda Berri 3 Eguzkitzaldea 20170 USURBIL (Gipuzkoa).

+ OSASUN GIDA +

FARMAZIAK ISIDORO ITURRALDE Homeopatia Formulación magistral Burda Berri, 1 ☎ 943 36 55 55	ODONTOLOGIA Odontologa Dra. M^a Jesús Rubio Muñoz Burda Berri, 1 - 1^{er}k. USURBIL ☎ 943 36 18 55
MASAJISTAK UMA masaje lekua Lepoko eta bizkarreko minak Kirol eta oinetako masajea K/ nagusia, 10-atzekaldea ☎ 659 043 486	LOGOPEDAK LOGOPEDA-PEDAGOGA - Ulermen arazoak. - Ahozkatzeko zailtasunak: Dislaliak, "rr". - Afoniak- Disfoniak, "Dislexia, Disglasia... - Degluzio atipikoa. Kontsultaren ordua eskatzeko, deitu: ☎ 635 70 13 74

Badok Amairu !!

Irati Iribar: "Erokeriarik handiena orain noa egitera"

Irati Iribar gizarte-integraziooko ikasketak bukatzen ari da Andoaingo Leizaran Institutuan. Orain praktikan dago Hernaniko Urumea Ikastolan baina laster Florentziara (Italia) doa "Leonardo da Vinci" bekari esker hiru hilabetez ikastera.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.
Arkumea.
2. OHITURA TXARREN BAT?
Erretzea.
3. ZER GORDETZEN DUZU SAKELAN?
Telefono mugikorra.
4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?
Hegazti batean, hegan egiteko.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?
Altuerari.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.
Aiton-amonak, izan duten bizitzagatik.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...
Familiarik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA HANDIENA.
Egingo dudana: hiru hilabetez Italiara joatea.

9. LIBURU BAT.
"Las orquídeas rojas de Shangai".

10. FILM BAT.
Asko, gehien bat benetan gertatutako historiak.



11. LEKU BAT.
Greziako iriak.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.
Andatza.

13. URTARO BAT.
Udara.

Noaia!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaia.com / www.noaia.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaia.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaia.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaia.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Danberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua, Nerea Korta.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

HELDUEN HEZIKETA ESKOLA **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

BIRIZIKLATZE-TASAK GORA EGIN DU **8. OR.**

2005ean, behera egin zuen sortutako hiri hondakinen kopuruak. Birziklatze-tasak, aldiz, gora egin zuen. Pozteko emaitza, ezberrik gabe.



UDALBATZA PLENOKO ERABAKIAK **10. OR.**

EZBEHARRA BIZKARREKO TUNELEAN **12. OR.**

HAUR ESKOLAREN KANPAINA BERRIA **13. OR.**

OTOLAREN ARRASTOA USURBILEN **14. OR.**

KIROLETAKO ALBISTEAK ETA EMAITZAK **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herra!

Zutabea !!



AITOR LANDALUZE

Erriberako kresala

Arratsalde hotza euritsua eta iluna zela gogoratu genuen Abapatean Txiribogako atea ireki zenean. Hiru itzal sartu ziren, kresala usaian bildua, barra bazterreko ohikoen goitik beherako begiratuaren eskanerrak ez zituen batere kikildu, are gehiago tabernan inor ez balego bezala jarraitu zuten. Gure aurretik pasa eta mariñel zaharrak zirela konturatu ginen, telebista azpiko mahaian eseri eta batek Permin Zulaikak, poltsikotik ron botila zahar bat eta hiru baso atera zituen. Basoak betetzen ari zen bitartean, Txomin Petria harrotuta, Ternuako azken bidaia kontatzen hasi zitzaien, jelak, baleekin izandako gorabeherak, beste arrantzaleekin izandako iskanbilak... Baina gehien harrotzen zuena XVI. mendean Txokoaldeko kaian eraikitako ontzia zen. San Esteban izeneko 400 tonako naoa, bale olio eta beste beretik ekarria zutena.

Perminek, lagunaren harrokeria gainditu nahian ronari zurruta bat eman eta bere bi lagunei ron hori karibeko La Española uhartetik ekarria zuela kontatzen hasi zitzaien, hura edatea hango haize eta giro epela edatea bezalakoa zela, une batez nostalgiak uharte hartara eraman zuen. Bueltatu zenean Txomin zirikatatu nahian edo, arrantzalearen bizimodua eskasa eta arriskutsua zuela esanez hasi zitzaion. Ondoren indietako bidaian abantailatz hitz egiten jarraitu zuen, gauza garbiekin

urrea, zilarra, rona ... Lan egiteak duen abantailatz. Gainera San Estebana itsasontzi ona bazan, oraindik eta hobe zela indietako urrea zilarra eta rona ekartzeko Mapillen egindako 800 Tonako galeoia.

Joxe Aialdek moztu zuen monologoa bihurtzen ari zen istorioa. Joxek Mediterraneo osoa zeharkatuta zuen pirata berebe-reen atzetik korsoa eginez, Aginagan 1778an egindako Santo Domingo gerra fragatan. Mariñel zahar honen hizkera eta estiloa modernoagoa zen eta bere istorioak biziak eta aberatsak, borrokak, abordaiak, afrika iparreko hiriak...

Kontu kontari botilak bata bestearen atzetik hustu zituzten. Tabernatik sartu bezala atera ziren. Kantuan hasi eta Txokoaldeko kairantz abiatu ziren.

Urrutitik kantari ari ziren azken estrofa belarrietara iritsi zitzaigun:

“... egun bat
eta beste bat
eta beste bat
itsasoa eta zerua ikusten...
egun bat eta beste bat ...
eta beste bat”

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

Ika-mika !!

Otsailaren 18an Bilbon manifestazioa egiteko arrazoiak

Eskubide zibil eta politikoen alde: epaie-
ta guztiak eten!

A) Prozedura judizialari buruz.

1. Ez ditu ganorazko prozesu bat izateko gutxieneko baldintzak ere betetzen: arbitra-
rio da.

2. Bultzada politiko bati erantzuten dio.

3. Aldez aurretik finkatutako zigorretan oinarritzen da, eta muzin egin die auzipetuen tortura eta tratu txarren salaketei.

4. Terrorismoaren aurkako legeak eta Auzitegi Nazionalako salbuespen-epaitegia ezabatzeko beharra dagoela erakusten du.

B) Auzipetuei buruz.

5. Auzipetutako pertsona eta antolakun-
deen giza eskubideak eta eskubide zibil eta politikoak urratzen ditu.

6. Auzipetuen duintasuna eta haien bana-
kako nahiz taldeko egitasmoak jorratzeko eskubidea babestu nahi ditugu.

7. Ez dugu “ingurune” nozioa onartzen,
denen aurkako jazarpen indiskriminatu

bilatzen duelako.

8. Epaiketa bera aldez aurretik ezarritako zigor bat izatea gaitzesten dugu. Behin-behineko espetxeratzea ezartzeaz gain kostu pertsonalak, ekonomikoak, lanekoak nahiz familiakoak eragiten ditu.

C) Euskal Herriari buruz.

9. Inoren esku-hartzerik gabe, bestelako Euskal Herri bat eraikitzea bidezkoa dela aldarrikatzen dugu.

10. Eskubideak eta askatasunak zatietzen dira. Haien alde egitean gure alde ari gara.

11. Gizarte bizi, kontziente eta konpromet-
titua nahi dugu.

12. Eskubide zibil eta politikoen aldeko borroka unibertsala da, disidentzia politikoa-
ren jazarpena ere halakoxea delako (zerrenda beltzak, euro-aginduak...).

13. Epaiketek bake-prozesua eratzeko aukerak kaltetzen dituzte.

D) 18/98+ plataformari buruz.

14. Bidezkoak diren jardueren kriminali-

zazioa dakarren esparru ez-demokratikoa salatzen dugu.

15. Justiziaren bidegabekeria eta gure eskubide zibil eta politikoen ahuldadea sala-
tzen ditugu.

16. Hedabideak egoera honetaz ohartara-
ziko dituen babes soziala lortu nahi dugu.

17. Pertsona guztien eskubide guztiak ain-
tzakotzat hartzeko topagunea eskaini nahi dugu, gure eskubideak irmoki eskatzeko eta eskatzen dugun horixe bera eskaintzeko era-
baki irmoarekin.

18. Kaierarekin gertatu zen bezalaxe, epai-
keta hauen aurka eta eskubide zibil eta poli-
tikoen alde manifestazioa egiteko dituen arrazoiak eman ditzala bakoitzak.

Usurbilgo 18/98+ lan taldeak manifesta-
ziora joatea gonbidatzen zaitu. Kontuan hartu otsailaren 11n ere Usurbilgo pilotale-
kuan izango gara daukagun materiala eta bonoak salduz.

Usurbilgo 18/98+ lan taldea

Inoiz ez da berandu

Gauza ugari ikas daitezke EPAn, Agerialdeko Helduen Hezkuntza Zentroan

Hizkuntza irakaslea da Paloma Redondo eta EPA Agerialdeko Helduen Heziketa Zentroan lehenengo eta bigarren mailetan irakasten du. Bere esanetan, “jende askok ez du eskola hauen berri”. Eskaintza interesgarria dela uste du, bereziki, ikasteko prest dagoenarentzat. Agerialdeko zentroan bertan bildu gara Paloma Redondorekin.

NOAUA! Zer da EPA?

Paloma Redondo. Helduen Hezkuntza Zentroa da EPA hitzarekin ezagutzen duguna. Hiru maila daude. Oinarritzko jakintzak lantzen dira hemen, baina horrez gain zenbait ikastaro instrumental ere baditugu: informatika, hizkuntza, tertulia literarioa...

Derrigorrezko bigarren hezkuntzari dagokionez, Lasartera bidaltzen dugu jendea, hemen ez baitago lekurik, eta han gainera irakasle gehiago ditugu; hemen hiruzpalau irakasle bagara, han zortzi gehiago, eta eskaintza handiagoa dugu han. Eskaintza zabala da, baita euskara ikastera etorri nahi duenarentzat ere. Eskaeraren arabera jarritzen ditugu baliabideak.

N. Noiztik dago Usurbilen?

P. R. Duela ia hamabost urte hasi ginen hemen eta Lasarten duela hemezortzi urte. Goizean informatika arloa lantzen dugu eta arratsaldean jada gela formalagoa daukagu. Bi gela ditugu momentuz Agerialdeko eraikuntzan; Lasarten, ordea, eraikuntza osoa.

N. Zenbat jende pasa da urte haue-tan EPA eskola honetatik?

P. R. Orain bi geletan hogeita hamarretik berrogeira pertsona izango ditugu, talde txikietan, 10 pertsonako taldeetan. Hamar bat etorkin ditugu harpidetuta, baina batzuetan ez dira etortzen, lan kontuengatik eta. Hala



IZENA EMAN NAHI DUENAK AGERIALDERA HURBILDU BEHAR DU.

ere, uste dut etorri beharko lukeena baino jende gutxiago datorrela, agian informazio gutxi dagoelako hezkuntza sistema honen inguruan. Eta sistema interesgarria dela uste dut. Normalean kanpoko jendea etortzen da ikastera, edo euskaraz ez dakien bertako jendea, baina eskaintza oso interesgarria dago informatika ikasteko ere. Ez bakarrik kanpotik datozenentzat, edo norentzat baliagarria izan daiteke.

N. Eskaeraren arabera sortzen dira ikasgaiak. Zeintzuk dira eskaera ohikoena?

P. R. Jendeak gehien eskatzen duena informatika da, baina nik uste dut zenbait gurasok euskarari hurbiltzeko beharra dutela. Nahiz eta Usurbilen orokorrean jendeak euskaraz jakin, beste batzuk ez dakite, eta behar hori badago. Etorkinekin, bestalde, eskaintza iaz sortu zen. Pakistango talde bat etorri zen eta talde sendo bat sortu zen hizkuntzak ikasteko, aurtien hainbeste etortzen ez badira ere. Orain, bestalde, gida baimena ateratzeko ikastaroa hasiko da.

Etorkinentzat ere hainbat ikastaro antolatzen dira

Oinarritzko hezkuntza ematen da printzipioz, baina jendeak maila aurreratzen duen heinean, maila altuagoko ikasketak jasotzeko aukera du. Informatika eta tertulia literarioa irakasten da, dantza edota gimnasia ere eman zuten duela pare bat urte... Eskaeraren arabera ematen dira klaseak. “Etorkinentzat eskaintzarik ere badugu, non hizkuntza irakasten diegun, besteak beste”.

Gainera, Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat egin dute eta honen bidez gida baimeneko zati teorikoa eskaini dezakete Agerialden, “zati hau baita hizkuntzaren alorretik zailen egiten zaiena”.



TXOKOALDE

KOLDO HUEGUN

Nekazal bideak eta aisialdia



Azkenengo astekaria aurrean dudala, auzoari zuzenean jotzen dion berri bati buruz, gogoetatxo bat proposatzen dizuet. Bai Irabitik barrena Santuenetik Txokora datorren bidea, bidegorri sarean sartzeko azken berriari buruz hain zuzen ere.

"Landa lurren aniztasuna ezagutarazteko ekimen" beltzez eta zutabe barruan. Baina nire galdera zera da: zergatik landa lurak, baserriak, baserritarrak ezagutzea eman eta bultzada bat eman asmoz, berriro ere, beraingana jo beharrean, zeharkako ekintzen bitartez dirua lurruntzen dugun? Zergatik ez gure lehen sektoreari laguntzeko, kate honen lehen maila den baserritarrari zuzenean ez lagundu?

Nola? Ba... nere ustez, bere lan jardueran ahalik eta traba gutxien ipiniz, eta beronek ekoiztutako produktuak legez babestuta. Hau da: gure kontsumo sareari, bertako produkzioa bere egin dezan derrigortuz, jakinik gure benetako beharren zati oso txiki bat besterik ez dela, eta txiki izatetik desagertzera kondena ez dadin.

Eta traba... zenbat aldiz geratu beharko ditugu gure traktore, asto eta mulak, Sutegitik hasi eta Errotaberri artean?

Espero dut, jatorriz lanerako den bidea, gero ere ahal izan dadin, aisialdirako erabilera guztiz parekoarekin, baina lehentasunak seinale bidez ongi zehaztuta utzirik, gu baino dexente lehenagotik "landa lurren aniztasuna" ezagutzea ematen ari diren herrialdetan bezala. Nekazal bide: "Camino de uso rural".

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Itxaropena



Zenbat gauza gertatzen diren egun munduan duela urte batzuk irudikatuko ez genituzkenak?

Nori bururaten ote zaio asteburuko gau normal bat iritsi eta bi pertsona (edo zenbaitzutan okerrago, bi koadrila oso) elkarri egurra ematen ikustea? Nori bururaten ote zaio astegun buruzuriko egun normal batean arrote bat ikusi eta "gaur horri eman behar diogu!" pentsatzea? "Supermerkatutik zazpigarren ateratzen dena gure biktima izango da!" Hamaika akzio anker...

Ongi pasatzeko egiten omen halako ekintza "relajanteak". Ez omen dute zertan edanda edo beren burua kontrolagaitz duten egoera batetan egon behar.

Eta nondik atera zaio jendeari halako biolentzia? Zerk eragin dio, batez ere gazteari, hala jokatu beharrak?

Erantzun bat eta bakarra ez da egongo, ziuraski, baina etorkizunarekin izango duela zerikusirik iruditzen zait niri. Zer espero du gazteak gizarte honetatik? Zer eskaintzen dio gizarteak gazteari? Eta gizarteari zuzentzen natzaionean, zuzentzen ari naiz gurasoei, hezitzaileei, zuzentzen ari naiz politikariei, etxebizitzak, soldatak, lan-kontratuak, langabezia... kontrolatzen dutenei... Itxaropenik erakusten al diete horiek guztiak?

Itxaropenik ezean, guztiak bost axola die. "Zer okerragoa gerta dakiguke?" pentsatzeraino iristen direnak gai dira... auskalo!

Ea gizartearen arduradunetatik hasita, helduenetara pasa eta gazteengana iristen den bizitzari behar bezala heltzeko fedea, itxaropena.

<<Esperantzak esperientzia garaitzen du>> Tomas Sosseyar.

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

Malenkonía

NOAUA!ko 225. ale honetan ere hementxe naiz herritarrei kontu kontari hasteko prest. Lehenik eta behin, NOAUA!ko langile guztiei zoriondu nahi zaituztet astekariarekin egiten ari zareten lanagatik, lan ederra benetan!

Gaur eguraldi ederra egiten duenez leihora irten naiz eta poz handia hartu dut, beti hartu ohi dudana bezala Ugarte baserria ikusten dudanean, eta baita inguruan ikusten dudana gainontzeko paisaia polita ikustean (Agerreazpi, Olarriondo...). Pena handia emango lidake egunen batean gaur bezala leihora irten eta guzti hau ikusi ezinak. Gezurra dirudien arren, badago jendea inguru liluragarri hau estimatzen ez duena eta sinistu nahi ez dudana arren, agian egunen batean hau guztia desagertaraziko digute, ze pena! Azkenean herriko leku eder guztiak kenduko dizkigute, norik ezagutuko du orduan gure betiko Usurbil?

Tira, jada otsailean gaude eta gero eta denbora gutxiago gelditzen zaigu auzoko festetarako. Azkenengo aldian auzoko gazteak animatu nahi izan nituen San Joanetako antolaketan parte hartzera, baina norbait animatu al da? Ea berriro esanda baten bat animatzen den.

Beno, irakurleok, presta zaitzete Ihauterietarako, gainean ditugu eta. Ondo izan eta hurrengorarte.



ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Garai bateko auzoa

Urte berria badoa, lasterka joango balitz bezala. Gabon jaiak, Errege eguna, Donostia eguna bere danbor soinuekin, Santa Ines, Kandelari, San Blas kandela, janari eta opil gozoak bedeinkatuta eta Santa Ageda.

Santa Ageda bezperan izaten ditugu koplak, abestiak eta makila eskutan, haurrak eta nagusiak. Auzo honetan ere izaten ziren antzeko ekitaldiak. Duela hogeit bat urte guraso elkarte bat jarri zen martxan eta giro polita izaten genuen. Ekintza gehienak haurrentzat izaten ziren eta guzti honen arduraduna Kontxa izaten zen. Oroimen ederra daukate hura eza-gutu zuten haurrek: erromeriak, auzoko plazan bazkariak eta lagun arte bikaina. Ez litzateke gaizki egongo orain ere, gazteak horrelako dinamika egitera animatuko balira.

Bestetik esan, gure auzoan zeuden landare handiak ere kendu dituztela. Honela bide bazterrak txukunago geratzen dira. Kexuak ere baziren bisibiltatea kentzen zutelako eta ikastolako irteeran autobusa-ren gelditzeko tokia zelako. Orain udaberri aldera ea landare polit batzuekin txukun-txukun jartzen diguten.



SANTUENEA

PAKO AGUDO

Auzoa, albiste iturri



Zorionez, azken bolada honetan gure auzoa albiste iturri bilakatu zaigu. Dagoeneko mar-txan da “kapoeira” ikastaroa. Erantzun ona izan du proposamenak eta orain ostiralero erdi dantza eta erdi arte martzial honetaz gozatzeko aukera dugu. Ikastaroa esan bezala, ostiraletan izaten da elkarteko egoitzan arratsaldeko 18:30etik 20.00ak bitartean. Norbaitek hasi berria den ikastaro honetan parte hartu nahiko balu hona hemen harremanetan jartzeko telefono zenbakiak: 943371535 eta 943365031.

Telefono zenbaki hauetan orain prestatzen ari diren ikastaroei buruzko informazioa ere eskura izango duzu. Adibidez, baserriar jantziak josten ikasteko tailerra ere martxan jartzeko asmoa badute. Horretarako ere partaidetza behar da. Beraz aukera asko eta ezberdinak etxetik gertu.

Bestalde, gure auzoaren kokapenak beti eman digu paseatzeko aukera ederra baina orain Buruntzaldean ibilbideak txukundu eta seinalizatzen ari diren honetan oraindik ere aukera ederragoa izango dugu. Informazio pixka bat eta ibiltzeko beste gogo pixka batekin gure auzotik ez hain urrun ditugun paisaia eta toki zoragarrietaz gozatzeko aukera izango dugu laster iritsiko zaigun udaberrian. Beraz, aukera asko gure denborari probetxua ateratzeko.

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

Neguko hotzak



Agur bero bat guztiei San Esteban alde hone-ratik! Neguko egun gehienak hotzak eta tris-teak badira ere, eta denak kexu bagara ere; neguko hotz eta egun triste hauek gure paisaiak edertzen dituztela onartu beharrean aurkitzen naiz. Eta lehiotik begiratu eta aurrean dudana paisaia gure San Esteban txoko ederrarena denez, azken aldian irudi ederrak ikusteko aukera eman dit.

Andatza berak, edertasuna berea izan arren, elurra egin eta hurrengo eguneko jantziak bere edertasuna areagotzen du. Egia esan, urtean hirutan edo honetarako aukera izatea eskertzekoa da.

Paisaiaren edertasunaz gain, gure inguruan ere dagoeneko aldaketak hasiak dira.

Hasiak dira argia jartzeko lanak. Egia esan, denok ere betidanik faltan bota izan dugu eta farolak jarri behar direla kexu izan gara sarritan.

Beraz, argiaren “asuntoa” guztiak pozten gaituen gaia da. Hemendik aurrera gauzez lasai gidatzeko aukera izango dugu, urrutira ikusteko aukera gehiago...

Eta gaueko besterik ez! Agur guztioi eta hurrengora arte!

AGINAGA

MARIA ANGELES ARRUTI

Sendotza

Ageda Deunaren eguna zen eta gure parrokiaren ospakizun berezia izan genuen, hiru gazteren sendotza.

Juan Mari Uriarte gotzaina izan genuen meza ematen bertako erretore Luis Aranalde eta Aldapa baserriko Manuel Aranguren laguntzaile zituelarik.

Egun handia eta gogoan izatekoa izan dute pasa den igandekoa gure hiru gazteek:

-Odile Ajuria Illarramendi.

-Oihana Eizagirre Azkaray.

-Imanol Esnaola Arrillaga.

Imanolek laster batean atera behar izan zuen, pilotari honek partida baitzuen jokatu beharra eta gotzain jaunak esan zion bezala, “gaur indar berrituta aterako zara hemendik eta partida 22 eta 10 irabaziko duzu, zorte on izan”.

Meza ondoren hamaiketako ederra eskaini ziguten bertako soziedadean. Guk, berriz, trikitixa doinuak eta kantuak jarri genituen giroa alaitzeko. Gotzain jauna ere gustora izan zen bertako giro ona ikusita.

Argazkia ateratzeko betarik ez genuen izan baina hurrengo batean jarriko dugu.



ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

20 lagun, 100 makila

Larunbatean izan zen Santa Ageda bezpera, eta aspaldiko partez zubietarrak aterik ate. 20 bat lagun azaldu ginen, eta 100 makila –badaezpada ere– (zuhaitz gaixoak denak adarrik gabe egiten duen hotzarekin).

Iruinen hasi zen festa. Denak pozik kantari, eta ondoren bi bertsolari handi, Asier eta Kepa gazteak. Horren ondoren jabeak sagardoa eta gazta opari. Bideo bat ere bagenuen baina hasi baino lehen zinta gabe.

Hurrengo geldialdia Astiazaran sagardotegian, eta han ere oparia, esker ona azaltzeko. Baserriako bidean kalejiran, trikitixarekin. Etxe eta taberna guztietan ongi etorri ona; eta hori eskertzekoa da. Tabernetatik tabernetara ibili ginen: Txikiardi, Alamandegia, Barazar, Araeta. Tartean baserritik baserrira: Aliri, Haundi, Barrenetxe Goikoa eta Barrenetxe Behekoa.

Afaltzeko ordua zen eta elkartertutik abiatu ginen. Kanpotik ederki usaintzen zuen Marianen entsalada beroak, Mikelen eta Jose Jabierren txuleta... Primeran afaldu genuen. Hainbeste lan egin ondoren prestatuko al digute afaria hurrengo urtean –edo etxera joan beharko dugu afaltzera–?



San Markos mankomunitateko herrietan, iaz, zabor gutxiago sortu eta hondakin gehiago birziklatu zen

San Markos mankomunitatea osatzen duten herrietan, Donostia, Errenteria, Pasaia, Oiartzun, Lezo, Astigarraga, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta eta Hernanin zabor gutxiago sortu zen iaz. 2004an sortutako hiri hondakinen kopuruarekin alderatuz, iaz %3,41 jaitsi zen zabor kopurua. 2004an mankomunitatea osatzen duten udalerrietako biztanle bakoitzak 483 kg hondakin sortu zituen urte osoan (1,32 kg egunean). 2005ean, aldiz, 466 kg (1,28 kg egunean).

San Markos mankomunitateko hiri hondakinen kudeaketaren balantzea egin berri du Fermin Loza mankomunitateko presidenteak. Bere esanetan, beste urte batez hiritarrek gaikako bilketan izan duten parte-hartzeari esker, zabortegira isuri diren kantitateak %6,07 gutxitu dira, 2004an botatako zabor kopuruarekin alderatuz. Hala eta guztiz ere, 97.009 tona hiri hondakin isuri behar izan direla San Markoseko zabortegian nabarmendu zuen.

Halaber, 2005ean sortutako hondaki-



SAN MARKOS MANKOMUNITATEKO KUDEATZAILEAK, PRENTSAURREKOAN.

nen herena (%31,71) berreskuratu zela esan zuen mankomunitateko presidentek. Etxebizitzetan herritarrek, guztira, 45.046 tona bereizi zituzten.

“Gaika biltzeko sistema hobetu dugu”

San Markos mankomunitateak oraingoz ez du materia organikoa gaika bil-

tzen. Nagusiki, papera, beira eta ontziak jasotzen ditu bereizita. San Markosek emandako datuen arabera, 2005ean zabor gehiago birziklatu zen. «Hazkuntza hori lortzeko gaika biltzeko sistema hobetu dugu. Udalekin lan-kidetzan, edukiontzi gehiago jarri dira eta sentsibilizazio kanpainak gehitu dira», azaldu zuen Lozak.

%3,41 jaitsi da hiri hondakinen kopurua

San Markos mankomunitateak datu orokorren berri eman du. Laster, herriz herriko datuak plazaratuko dituzte. Horiek jaso bitartean, datu orokorren artean esanguratsuenak dituzue hauexek.

- Lehenengo aldiz hiri hondakinen kopurua %3,41 jaitsi da.
- 2005ean, biztanle bakoitzeko 466

kg hondakin sortu zen. 2004an, biztanle bakoitzeko 483 kg.

- 2005ean, biztanleko eta eguneko 1,28 kg hondakin sortu zen (2004an, 1,32 kg biztanleko eta eguneko).

- Gaikako bilketari esker, zabortegira isuri diren kantitateak %6,07 murriztu dira.

- 2005 urtean %31,71 berreskuratu da. Sortutako hiri hondakinen herena

gutxi gorabehera.

- 2005ean hiritar bakoitzak 50,55 kg paper/kartoi bereizi ditu (2004 urtean baino 3,63 kg baino gehiago).

- 2005ean hiritar bakoitzak 28,72 kg beira bereizi ditu (2004 urtean baino 1,32 kg gehiago).

- 2005ean hiritar bakoitzak 12,58 kg ontzi arin bereizi ditu (2004 urtean baino 1,46 kg gehiago).

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Ariztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400

 pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Sentsibilizazio kanpaina berri bat jarri da martxan

Egunero sortzen ditugun hondakinak murrizteko ekimena Lehen Hezkuntzan garatuko da

Eguneroko martxan sortzen dugun hondakin kopuruak behera egin zuen iaz. Baina ez dugu horrekin konformatu behar. Horregatik, San Markos mankomunitateak sentsibilizazio kanpaina berri bati ekin dio. Lehen Hezkuntzako 2.064 ikasleei zuzendua dago eta mankomunitatearen lurralde eremuan dauden 55 ikastetxeetan garatua izango da. “Zirt edo zart murriztu”, hala du izena jolas eta antzezlan bidez osatzen den kanpainak. Usurbila otsailaren 15ean iritsiko da.

“Hondakinik hoberena sortzen ez dena da”. Hori da abiapuntua. “Zirt edo zart murriztu” izenekoak, Lehen Hezkuntzako ikasleen adinera egokitutako kanpaina da. Funtsean ideia hau sendotu nahi da: gure zaborraren kopurua murriztea oso erraza dela.

Komedia kutsuko *sketch* laburren bidez eta ikus-entzunezkoen laguntzaz, gure planetak hainbeste zabor sortzearen beharrik ez duela adierazi nahi da. “Aulkiaren jolas” ezagunarekin, adibidez, berrerabilpenak duen garrantzia azpimarratu nahi da.

“Antzarra jolas erraldoian” ere har-

tuko dute parte ikasleek. Irudian islatzen den moduan, ikasleek galderak eta probak gainditu behar dituzte. Batzuk eta besteak, hondakinak murriztu eta berrerabiltzeari buruzkoak izango dira.

“Zirt edo zart murriztu” kanpainaren jarduerak osatzeko, material didaktikoa banatuko da ikasle eta gurasoen artean baina baita irakasleen artean ere.

“ZIRT EDO ZART MURRIZTU”

Kanpaina berri honek
izaera ludikoa du;
otsailaren 15ean iritsiko da
Udarregi Ikastolara”

Kanpaina hau San Markos mankomunitateko ikastetxe guztietara iritsiko da. Udarregira, otsailaren 15ean. Kanpaina osoari aurre egiteko, 59.994,82 euroko aurrekontua aurreikusi du mankomunitateak. Foru Aldundiak aurrekontuaren %50a finantzatuko du.

IMANOL UBEDA



ANTZARRA-JOLAS ERRALDOIA
EGINGO DA UDARREGIN.

“Merka2 San Markos” azokak 10.000 lagun bildu zituen

Akaso gogoan izango duzue. San Markos mankomunitateak bigarren eskuko merkatuak antolatzen zituen pasa den udazkenean. Azoka hauen bidez, kontsumo arduratsua sustatu nahi zen. Berrerabiltzearen balorea indartu asmoz, bigarren eskuko merkatuen balioa aldarrikatzea izan zen kanpainaren helburua. San Markosek aditza eman duenez, herriz herriko azoka ibiltari honek 10.000 lagun bildu zituen.

Eguzkiren iritziz, “herritarren lorpena da eta ez mankomunitatearena”

Datu hauek ezagutu eta berehala, Eguzki talde ekologistak prentsa agiria bidali zuen komunikabideetara. Eguzkiren esanetan, San Markosek “ez du hondakin organiko ugari sortzen dituztenen zabor bilketa selektiboa egiten, ez du beharrezkoa

den konposta egiteko planta eraiki, ez da zaborra jasotzeko inolako ataririk ateko zerbitzurik jarri...».

Talde ekologista honen ustez, errauste planta ez eraikitze bidez, badauden arren, San Markos mankomunitateari ez zaizkio interesatzen. Are gehiago, errauste

plantaren aldeko iritzia sortu nahi duela dio Eguzkik.

San Markos mankomunitatean 2004an baino zabor gutxiago sortu zen iaz. Eguzkiren iritziz, “herritarren lorpena da”, eta mankomunitateak bere gain hartu nahi izatea onartezina dela dio.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com

Azken udalbatza plenoko erabakiak

Urtarrilaren 31ko ohiko udalbatza plenoan, besteak beste, Haur Eskolako arautegia aldatzea onartu zen. Bi dira aldaturiko diren artikulua.

3. artikulua horrelaxe geratuko da:

“Haur Eskolako ikasturtea irailean hasten da eta uztailean bukatu, abuztuan oporrak izanik. Ikasturtea behar den denboraz planifikatzeko eta mota guztietako aurreikuspenak egiteko, aurrematrikulazio epea ezarriko da, martxoa-apirila, hurrengo ikasturtean hasteko moduan dauden haurren izenak hartzeko, hau da, irailean hasteko moduan daudeneztat nahiz beranduago hasiko direnzentzat (haurdun daudenei ere matrikulatzeko aukera emanaz) matrikula-epea prentsa-ren bidez jakinaraziko delarik”.

Arautegiko 11. artikuluan, aldiz, horrela finkatu dute:

“Honako hauek osatuko dute zuzendaritza batzordea:

Eskolaren zuzendaritza, zuzendaritza batzordearen lehendakaria izango dena.

a) Udaleko ordezkari bat (udalaren hezkuntza saileko zinegotzi-ordezkarria).

b) Irakasleek euren artean hautaturiko

ko hiru ordezkari izanik, maila bakoitzeko irakasle bat.

c) Gurasoek euren artean hautaturiko hiru ordezkari izanik, maila bakoitzeko guraso bat”.

Ongizate eta Osasun Batzordeak urtarrilaren 25ean egindako bilkuran, aho batez, proposamen hau luzatu zuen eta urtarrilaren 31ko udalbatza plenoak halaxe onartu zuen.

Pleno horretan, gainera, Haur Eskolako erabiltzaileei dagozkien eskubide eta betebeharren arautegia behin betikoz onartua izan zen.

Industriaguneetako hondakinak

San Markos mankomunitatea herri ezberdinetako eremu industrialetako hondakinak kudeatzen ari da eta Usurbilgo industrialetako bilketa mankomunitate honek burutzen duen zerbitzuari eranstea eskaintza egin du. Udalbatza plenoan, San Markos-ek egindako eskaintza onartzea egoki ikusi zen.

Eguneko Zentroa

Eguneko Zentroaren kudeaketa eta erabilpenaren emakida administratiboa beste urte betez luzatu zaio GSR kooperatibari.



GSR-K EGUNEKO ZENTROA
KUDEATZEN JARRAITUKO DU.

Erroizpe erreka ur-emakida

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritzan, Usurbilgo Se-1 Erroizpe erreka ur-emakida arautzeko eskaera egitea erabaki zuen udalbatza plenoak. Emakida horretatik hornitzen da Usurbilgo zati handi bat.

Eguzkitza auzoko lanak

Estatuko abokatuak Eguzkitza inguruko eta Kale Nagusiko obrak gelditzea eskatu du. Alkatetzak, dekretu bidez, kasua aurrera eramateko abokatuak izendatu zituen urtarrilaren 26an eta pasa den astearteko plenoan erabaki hori berretsi zen EA, EAJ-PNV eta PPren aldeko botoekin. PSE-EEk, berriz, aurkako botoa eman zuen.

Foru Aldundiak 19.008.604 euro inbertituko ditu Usurbilen

2006ko aurrekontuetan hala jaso da; datozen urteetan beste 24.219.999 euro inbertituko ditu

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gabenduaren 22an onartu zituen aurtengo aurrekontuak. Dagoeneko, herrietako alkateei helarazi zaie aurrekontuen txostena, udalez udal egingo diren inbertsioak eta gastuak zehaztuz. Usurbilen 19.008.604 euro inbertituko dira aurten eta, hurrengo urteetan, 24.219.999 euro.

Harane futbol zelaierako, 200.000 euro aurreikusi dira Foru Aldundiaren egitasmoen arte-

an, Txokoaldeko Irisasin egingo den inbertsioa nabarmendu daiteke. Adin txikikoen zentro honen kudeaketarako 579.618 euro aurreikusi dira. Elhuyar Fundazioari 150.000 euroko ekarpena egingo zaio. 2006ko aurrekontuetan ere, Harane futbol zelaian belar artifiziala jartzeko 200.000 euro aurreikusi ditu Foru Aldundiak.

Errepideak eta gizarte arloa, inbertsio nagusien artean

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamenduak 601.571 euro inbertituko ditu.

Gizarte Politikarako Departamenduak, 739.476 euro (tartean da Txokoaldeko Irisasi zentroa kudeatzeko aurreikusi dena). Landa Ingurunearen Garapenerako Departamenduak, 129.519 euro.

Errepideen arloari dagokionez, diru partida garrantzitsu asko dago aurrekontuetan: A-8ko mantenu lanetarako 966.492 euro, A-8an Orio-Aritzeta artean hirugarren erreia egiteko 6.769.492 euro, Donostiako bigarren ingurabidea egiteko 6.316.525 euro.

IMANOL UBEDA

[illegible]

Ezbeharra Bizkarreko tunelean

Otsailaren 1ean, gizonezko bat hil zen trenak harrapatuta. Bizkarreko tunelean eman zen ezbeharra (tren geltokitik oso hurbil). Eguerdiko 12:00ak aldera, Donostiatik Bilborantz zihoan trenak harrapatu zuen gizonezkoa.

Udaltzaingoa, anbulantzia eta Ertzaintza berehala hurbildu ziren Bizkarreko tunelaren ingurura, baina ez zegoen zer eginik. Ezbeharra gertatu eta momentuan hil baitzen.

Tren zerbitzua eten egin zen ordubetez. Autobusez osatu ziren Donostia-Usurbil eta Usurbil-Donostia ibilbideak. Istripu bat izan ote zen edo bere buruaz beste egin ote zuen, ezin argitu daiteke. Hala zioen Udaltzaingoa ezbeharra eman zen unean bertan.



TREN ZERBITZUA ORDUBETEZ ETEN EGIN BEHAR IZAN ZUTEN.

Hirugarren adinakoei arreta osoa eskaintzeko ikastaroa

Otsailaren 13tik aurrera, hirugarren adinekoei arreta osoa eskaini ahal izateko ikastaroa antolatu du Gipuzkoako DYAK. Bi asteko iraupena izango du ikastaro honek. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira.

Otsailaren 13an hasi eta otsailaren 24an amaituko da DYAK antolatu duen ikastaroa. Donostian egingo da, KutxaZabal zentroan (Moneda base-ria), Serapio Mujika 10 kalean. Eskolak astelehenetik ostiralera

emango dira, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

DYAREN IKASTAROA

“Ikasle kopurua mugatua izango da”

Ikastaroan izena emateko ez da beharrezkoa aurrez osasun ezagutzarik izatea. Helburu nagusia laguntza beharrean dauden hirugarren adinekoen zaintzan hezte da. Zahartze prozesua eta beronek dakartzan gaitasunak ezagutu eta egunerokota-

sunean aurki ditzakegun egoerei aurre egiteko teknikak irakatsiko dira, zaintzaren beraren garrantzia eta zaintzaileena ahaztu gabe.

Oinarrizkoak eta erabilgarriak diren ezagupenak dira eta, oso modu erraz eta arruntan, teoria eta praktika arloak landuko dira ikastaroan.

Matrikularen prezioa, ikastarorako txostena barne, 75 eurokoa da. Ikasle kopurua mugatua da. Era honetan, ikastaroaren kalitatea bermatu nahi da.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, deitu 943 46 46 22 telefono zenbakira.


ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

OS3
arkitektura
proiektuak - interiorismoa
obrak - hirigintza - topografia
943 36 53 73 - 635 71 44 93
os3arkitektura@euskalerrria.org

l its r tz
Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA
Juan Jose enea, 6 Kalezan
Telf: 606 37 21 05

Komunikazioaren garrantzia

Guraso eta Haur Eskolaren arteko harremanak indartzeko proiektu berritzailea aurkeztu da

Edurne Urdanpilleta Haur Eskolako hezitzaileetako bat da eta berriki proiektu interesgarri bat aurkeztu du. Prentsaurreko bidez eginiko aurkezpenean, Jose Ramon Mauditek ere hartu zuen parte. Maudit terapeuta, psikologo eta oinarritzko prebentzioan aditua da. Proiektuan parte hartu duten bi guraso ere izan ziren agerrialdian, Kontxi Carballeda eta Maier Tapiá; baita Txileko bi lagun ere, oinarritzko prebentzioan Jose Ramon Mauditekin lanean aritutakoak. Hitz gutxitan esanda, ekimen honen bidez guraso eta Haur Eskolaren arteko komunikazioa sustatu nahi da, bereziki, 0-1 txikien gelan.

0-1 urte arteko bi gela daude Haur Eskolan, bata urtariletik apirilera bitarte jaiotako haurrentzat eta, bestea, 0-1 txikien gela deritzona, apiriletik abendura arte jaiotakoena. Azken gela honetan eraman dute aurrera egokitzapen prozesu hau. Izan ere, adin tarte horretan haurrak beharrezko duen babesa izatea garrantzitsua dela diote adituek, eta Haur Eskolara joaten den lehen eguna oso bortitza izaten denez umeentzat, egokitzapen prozesuan aldaketa batzuk egitea proposatu zuten. Orain arte bi asterainokoa zen egokitzapen prozesu hori Usurbilgo Haur Eskolan, baina haurren lehen hilabete horietan amatasun baja ez zaio oraindik amaitu amari eta horrek egokitzapen prozesu luzeagoa aurrera eramatea ahalbidetzen du. Horrela, gurasoak Haur Eskolara joateko denbora badute, pixkanakako egokitzapena burutzea posible da.

Haur eta guraso arteko komunikazioari garrantzia ematen diote Haur Eskolan, eta baita Haur Eskola eta etxearen arteko komunikazioari ere. Horregatik, iaz Jose Ramon Maudit irakaslearekin jarri ziren harremanetan eta guraso eskola antzeko bat osatu zuten. Gurasoak bildu eta euren zalantzak azaldu zituzten, eta Jose Ramonek bidea argitu zien. “Berarekin hitz egitean ikusi genuen garrantzitsua zela ekosistema osasuntsua sortzea guraso, haur-eskola, hezitzaile eta haurren aldetik”, argitu zuen Edurne Urdanpilletak. 0-1 adin bitartean haurrak



KALEZARREN DAGO HAUR ESKOLA ETA BERTAN EGIN ZEN PROIEKTU BERRITZAILE HONEN AURKEZPENEA.

Haur Eskolara joaten hasten diren momentua aukera ona izan zitekeela ikusi zuten, “orduantxe hasten direlako Haur Eskolara etortzen”, eta ingurune hori guztiz moldatzea erabaki zuten.

Ekimen berritzailea

Ekimen honen arabera, ama haurdun dagoen momentutik hurbilduko da Haur Eskolara”

Hastear zeuden guraso guztiekin hitz egin zuten eta bilera bat egin zen Jose Ramon Maudit, guraso eta hezitzaileen artean. Argi geratu zen bilera hartan “egokitzapena bide bat dela komunikazioa lantzeko eta lasaitasuna bermatzeko”, eta proposamen deigarri batek egin zuen aurrera: “Ama haurdun dagoen momentutik Haur Eskolara etortzea eta gelan egotea”. Bertan, beste haurrak ikusi eta hezitzaileekin hitz egiteko denbora izango lukete. Izan ere, Jose Ramon Mauditen aburuz, haurrak jaio aurretik ahotsaren tonuak antzeman egiten dituzte, baita ama eta hezitzailearen artekoak ere, eta hor hasten da egokitzapen prozesua. “Gerora ikusi dugu honek ahalbidetu duela gurasoak lanera lasai joatea, eta hezitzaileok ere lasai geratzeko, haurra jada gehiago ezagutzen dugulako”, kontatu

zuen Edurnek. Honen harira, gurasoak gelako partaide sentitzea aspektu garrantzitsua dela esan zuen, beste haurrak ere hartzen dituztelako, behar denean lagundu ere egiten dutelako, eta horrela etxea eta Haur Eskola arteko muga nolabait hautsi egiten delako.

Proiektua jada martxan

Kontxi Carballedak eta Maier Tapiák beren haurrekin prozesu hau burutzeko aukera izan dute, eta beren esperientzia kontatu zuten. Kontxiri lanean hasteko bi egun gelditzen zitzaizkion, eta egokitzapen prozesu horrek lasaitasuna ematen ziola aitortu zuen. Izan ere, haurrekin ingurune horretan egon izanak eta hezitzaileekin nola egongo zen jakiteak, bera lanera joatean haurra ondo egongo denaren ziurtasuna ematen ziola esan zuen. Maier Tapiák, berriz, jada prozesua pasa du, bi hilabete baitaramatza lanean. Beraiek ere pixkanaka hasi zirela kontatu zuen; haurrekin ordu pare bat egon eta Haur Eskolan umea bakarrik ordu erdi uztekin, umea eskolan bakarrik lau ordu t’erdi uztera pasa ziren. “Lanean lasai hasi ginen, haurra ere lasai ikusten genuen eta”, baieztatu zuen Maierrek, era honetan esperientzia beste gurasoei ere gomendatuz.

Otola trikitilariaren arrastoa Usurbilen

Lehengo astean zendu zen Bittor Gurrutxaga "Otola" trikitilaria. Sakabi eta Auntxaren belaunaldikoa zen. Ez zuen, haiek bezala, diskorik grabatu, eta ez zuen beharbada haien osperik izan komunikabideetan, baina erromeriazaleen artean estimazio bertsua izan zuen, eta trikitiaren inguruko festa eta jaialdietan ezinbesteko gizona izan zen. 1972an, Usurbilen egin zen Trikitilari Eguna eta Sakabi eta Egañazpiri omenaldia egin zitzairen. Egun hartan, gure artean izan zen Otola.

Azpeitiko Otola baserrian jaio zen 1919an. Iturbidetarrak (Boni, Joxe Mari, Patxi, Migel eta Imanol Arregi) izan zituen pandero lagun. Bitan hartu zuen parte Euskal Herriko Trikitilari Txapelketan, 1973an eta 1974an, bie-

tan Boni Iturbiderekin. Joxe Mari Iriondok grabaketak egin zizkion Loiola Herri Irratian, Migel Iturbiderekin, eta bi omenaldi jaso zituen: 1974an, Arraten, Joxe Kruzelegi "Kataolatza" rekin batean; eta 85 urterekin bigarrena,

Nazioarteko Trikitixa Jaialdian.

1972ko apirilaren 16an, Sakabi eta Egañazpiri Usurbilen egin zitzairen omenaldian hartu zuen parte Otolak.

Helduagoak direnek akaso gogoan izango dute egun hura. Bi argazki hauek dira omenaldi haren lekuko.



1972KO APIRILAREN 16AN, USURBILGO FRONTOIAN OSPATU ZEN TRIKITILARI EGUNA. SAKABI ETA EGAÑAZPI OMENDU ZITUZTEN. BEHEKO ILARAN AUNTXA, EZEZAGUNA, BITTARTE ETA OTOLA.




1972-04-16 USURBIL. OTOLA ETA MIGEL ITURBIDE ESERITA ETA ZUTIK BONI ITURBIDE.

2005eko NOAUA! guztiak biltzeko garaiz zabiltza oraindik

Iazko aldizkari guztiak bilduta badituzu, lan erraza duzu. 2005eko tapa eta aurkibidea eskuratu eta Lizardin edo Lauroken koadernatu ahal izango dituzu ale denak. Gogoan izan, bazkide zareten guztiok tapa eta aurkibidea doan jaso ditzakezuela NOAUA!ko egoitzan bertan.

Tapa eta aurkibidea doan dira bazkideentzat. NOAUA'n eskura ditzakezue biak. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 euro ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20 euro aurkibidearengatik.

Koadernatzea, berriz, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Baina koadernaketa berdin-berdin



ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek. Ez ahaztu bi denda hauetan ere, eskura dituzuela 2005eko tapak eta aurkibideak.

SUDOKU

9 x 9ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ezin duzula errepikatu errenkada eta zutabe berean, ezta dagon 3 x 3ko laukian ere.

			1					8
4	5				7	1		
	7			5			9	
			5			3	4	
				7				
	6	5			8			
	9			3			8	
		4	7				2	6
1					6			

Egilea: LUMA. Soluzioa: 17. orrialdean.

Oriaren XIII. Traineru Jaitsiera, larunbatean

Astillerok ez du gonbidapena jaso eta Iñaki Errastik ezingo du parte hartu

Arraun denboraldia hasteko lau hilabete inguru falta badira ere, traineru guztiak prestaketa lanetan murgilduta daude burubeldarri. Negu partean egiten den lanak garrantzia handia izan ohi du. Korrika egin, ergometroan ibili, pisuak altxa... Ezkutuko lan gogorra baliogarri izaten da uda parterako. Larunbatean, ordea, Oria ibaian izango dute hitzordua. Oriaren XIII. Traineru Jaitsiera jokatu da eta ontzi ugari ariko dira nor baino nor gehiago.

Entrenamendu hutsa izango da otsailaren 11n, larunbatean, jokatu dena. Denborak hartuko dituzte, sailkapenak ere egingo dituzte, baina tartean ez da epailerik izango. Lehiaketa ofizialetik kanpokoa da estropada hau, baina traineru bakoitzaren prestaketa nola doan ikusteko eta gainontzeko ontziekin parekatzeko aukera paregabea izaten da horrelakoetan.

Arratsaldeko 16.00etan hasiko da estropada. Orioko, Getariako eta Tolosako neskez osatutako traineru bat eta beteranoak Saikola paretik irtengo dira 4.000 metroko ibilbidea burutu asmoz. Traineru nagusiak, berriz, Aginagatik, Mapil paretik, irtengo dira minutu bateko tartearekin eta 6.000 metro inguruko ibilbidea egin ondoren Orioko zubia izango dute helmuga. Oraindik zenbat taldek parte hartuko duten zehaztu gabe badago ere, 30 ontzi inguru izango dira Aginagako abiapuntuan.

Hainbat usurbildar dauden Pasai San Pedro ontzia bertan izango da, baina ez Iñaki Errasti Aginagako arraunlariaren Astilleroko trainerua. Azken urteetan Oriako uretan izan da talde hau, iaz 4. postua eskuratu zuten eta aurreko hiru edizioetan beraiek izan ziren azkarrenak, baina Iñakik esan digunaren arabera, aurtengoan ez dute bertan izateko gonbidapenik jaso.

Izan ere, Astillero auzia pil-pilean dago berriz ere. Iazko denboraldian doping kasurik egon ez bazen ere, talde honek helburu terapeutikoak dituzten debekatutako produktuen (AUT) eskaera zabalaren ondorioz etorri ziren Hondarribiko galdeketa, Astilleroen ja-



30 ONTZI INGURU IZANGO DIRA AGINAGAKO ABIAPUNTUAN.

rreraren aurka TKEk egindako salaketa, arraunlarietako zigor espedienteak... Orain, berriz, Astillerorik gabeko liga berria osatu nahi dute TKEko beste klubek.

Iñaki Errastiren esanetan Astillero erditi kendu nahian dabilta beste taldeak. *"Gure aurkako frogarik ez dute eta guk egin dugun pekatu bakarra azken urteetan traineru onena izatea izan da. Talde batzuei ez zaie hori interesatzen eta paretik kendu nahi gaituzte. Susmoak dituztela diote, baina ez dago frogarik, TKEtik orain arte ez gaituztela bota da horren adibide garbiena. Orain, berriz, beraiek antolatutako liga sortu nahian dabilta, gu alde batera utzi eta beraiek nahi dutena egin ahal izateko".*

Ligakoek dopatzea leporatzen diete, baina horren frogarik ez dagoela dio. *"Astillerok debekatutako produktuen hartzeko eskaera hori egin zuen arraunlari desberdinentzat eta TKEko medikuaren baimena jaso genuen. Arraunlari askorentzat zirela eta susmo horrekin bueltaka dabilta, baina guk egin duguna legezkoa da. Aurreko postuetan ibili ez bagina ez zen horrelakorik gertatuko, baina klub batzuk beraien interesak dituzte. Astillero arraunlariak eramaten saiatu ziren lehen dabilta, baina ez dute taldea desagitea lortu. Orain ligatik kanpo utzi nahi gaituzte. Gertatzen ari dena harrigarria da niretzat".*

JOSU ARANBERRI

Trinketa txapelketako finalean da Landa

Andatzpe-Peña Pagola pilota elkarteko Mikel Landa lasarte-rrak trinketako Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako finala jokatu du larunbatean, hilaren 11n, Donostiako Gaska trinketeen. Arratsaldeko 16.00etan hasita Hernani Pilota Elkarteko Unai Albarez pilotaria izango du aurrez aurre. Herriko taldeko Jabier Santxoren aurka jokatu zuen finalerdietan eta 40 eta 20 irabazi ondoren lortu zuen finalerako txartela.

Hiru eskubaloitako partida Oiardo kiroldegian

Asteburu honetan eskubaloiaz ahozatzeko aukera paregabea izango da Oiardo kiroldegian. Hiru neurketa jokatu dira bertan. Lehenengo Territorial mailako taldeak Andoaingo Leizaran Ernio Inmobiliaren aurka jokatu du. Kadete mutilen taldeak Aloña Mendi taldea izango du aurrez aurre eta kadete nesken taldeak Udaberri txapelketako lehen norgehiagoka jokatu du Leizaran taldeko nesken aurka.

Aholkua !!

Ohiko kontua da garbigailuan orban bat kentzeko arropa sartzea eta orban horrexekin ateratzea berriro. Hori ez gertatzeko, arropa garbigailuan sartu aurretik orban hori berariaz tratatu beharra dago. Substantzia asko ehunean sakon-sakon sartzen direnez, aurretiaz tratatzen ez bada, garbitu soil batekin marka ez da kentzen. Hona hemen orban horiek kentzeko aholku batzuk:

Produktu kosmetikoen orbanak

- Ezpain-barra. Balia ezazu lehorreko garbiketarako disolbagarri bat edo alkolhol metilikoa; ondoren, prestatu detergente likidoa eta amoniakoa, nahasirik,

Agur orban zailei

eta ipini orbanean bertan.

- Oinarri-krema. Igurtzi detergente likidoz eta garbitu uretan.

- Perfumeak. Kendu amoniakoz, botilatilik zuzen aplikatuz. Garbitu ezazu detergente likido batekin.

Elikagai eta edarien orbanak

- Landare-olioak. Blaitu arropa eta eman alkohol metilikoa eta tanto bat ozpin zuri. Geratu den orban hori kentzeko, aplikatu behin baino gehiagotan lehorreko garbiketarako disolbagarria.

- Garagardoa. Beratu arropa ozpin zurian eta, beharrezkoa bada, detergente biologiko batekin. Garbitu uretan. Garbitu ur bero-beroan.



- Txikle. Sartu arropa izozkailuan edo igurtzi jela pusketekin, txikle izoztu eta erraz askatu arte. Hondakinei eman alkolhol metilikoa edo abarrasa.

- Tomate saltsa. Garbitu ur hotzetan eta beratu detergente likidoan. Bestela, eman alkohol metilikoa.

Eguneko goardiako farmaziak

Otsailak 9, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 10, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 11, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 12, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 13, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 14, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Otsailak 15, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 16, osteguna
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 17, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 18, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Otsailak 19, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Autobus ordutegia
Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25
08.00		08.25**	
08.00	08.20	08.25	08.45
08.40	09.05	09.25	
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40		10.05	10.25
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40		11.05	11.25
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40		12.05	12.25
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40		13.05	13.25
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40		14.05	14.25
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40		15.05	15.25
15.00	15.20	15.30	

■ Soilik larunbata gauze # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiaro

■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiaraino

Harremnatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia
Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35		08.00
07.45	08.05		08.30
07.45	08.05	08.15	08.40
08.15	08.35		09.00
08.45	09.05	09.15	09.30
08.45	09.05	09.15	09.40
	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05		10.30
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05		11.30
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05		12.30
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05		13.30
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05		14.30
13.45	14.05	14.15	14.40

*Aiatic dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze

Harremnatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

EuskoTren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08*	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09:20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10.03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21#	-	20:48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

Ez da Usurbilen geratzen

Harremnatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Agenda !

Otsailak 13, astelehena

Hirugarren adinakoei arreta osoa eskaini ahal izateko ikastaroa, DYAk antolatuta. Bi asteke iraupena. Informazio gehiago: 943 46 46 22.

Otsailak 14, asteartea

"Etxebizitza Erosi" izeneko mintegia KzGunean. 11:00-13:00 (euskaraz).

Otsailak 18, larunbata

18/98+ lan taldeak antolatutako manifestazioa Bilbon 17:30ean. Autobusa antolatu da Usurbilen. Izena emateko, ohiko tokietan.

Otsailak 20, asteartea

Internet oinarritzko ikastaroa KzGunean. Otsailak 20-martxoak 3, 11:00-13:00 (euskaraz).

Zubietako Eskola Txikian aurrematrikulazioa zabalik

Zubietako Eskola Txikiak aurrematrikulaziorako epea ireki du: epea otsailaren 6tik 18ra artekoa (biak barne). Matrikulaziorako ordutegia: 12:00-13:00. Eraman beharrekoak: haurren argazkia eta familia liburuaren kopia.

Soluzioa !

* 14. orrialdako denborapasa-ren soluzioa

6	3	9	1	2	4	5	7	8
4	5	8	6	9	7	1	3	2
2	7	1	8	5	3	6	9	4
8	1	2	5	6	9	3	4	7
9	4	3	2	7	1	8	6	5
7	6	5	3	4	8	2	1	9
5	9	6	4	3	2	7	8	1
3	8	4	7	1	5	9	2	6
1	2	7	9	8	6	4	5	3

Musikaren txokoa !

**"Euriaren Zain", Piztiaken disko berria**

Azken urteak isilean igaro eta gero, Ondarroako taldea albiste dugu berriro



ere. Piztiak bezala zuzeneko emanaldirik ez egiteak ez zuen taldearen bukaera ekarri eta denborari denbora emanaz, berriro bueltan datoz. Entsegu lokaleko lanak ongi egin ondoren, Josu Izagirrekin jarri ziren harremanetan ikuskizun berri bat

sortzeko ideia sakontzeko. Horrela sortu da "Euriaren zain" ikuskizuna: "bost lagunez osaturiko taldea egin dugu ikuskizuna taularatzeko. Piztiak osatzen dugun hiru lagunez gain, Jose Lastra soinu teknikaria eta Josu Eizagirre bera batu dira taldera. Josek mahai teknikariaren lana egingo du eta Josuk zuzenean irudiak nahastuko ditu". Kasu horretan, beraz, DJ baten antzera eta eskenatoki gainean musikari bat bezala, irudiak proiektatuko ditu laugarren piztia bihurtu denak.

Egin kontu !

Sagarrondotik 06 jaialdia martxoaren 17ko asteburuan ospatuko da

Chambao, Sorkun, Loquillo y Trogloditas, O'Funkillo eta THC taldeak ariko dira martxoaren 17an, ostiralarekin, Hernanin, Sagarrondotik 06 jaialdiaren barruan; eta biharamunean, martxoaren 18an, Berri Txarrak, Betagarri, Morodo & Ranking Soldiers eta Celtas Cortos ariko dira, talde sorpresa batez gain. Bi kontzertuak, ostiralekoa bezala larunbatekoa, 21:00etan hasiko dira eta 12.000 lagunentzako lekua

duen karpa erraldoi batean egingo dira.

Igandean, martxoak 19 dituela, bestelako hainbat ekitaldi izango dira. Urnietan, sagardo dastatzea, txekor erretzea, Buruntzaldeko artisau eta produktuen azoka, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo kirolari ez profesionalen arteko hainbat lehia. Era askotako zerbitzuak eskainiko dira gune estali horretan: ogitartekoak, txosna guneak, komunak...

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

Usurbilgo Haur Eskola LAN POLTSA OSATZEKO DEIALDIA

Maisu/maestraren titulua,
Haur Hezkuntzako espezialitatearekin edo
Haur Hezkuntzako Goi Teknikariaren titulua
izan ezker,

Curriculum-a honako helbide honetara bidali
Otsailaren 17a baino lehen:
Usurbilgo Haur Eskola.
Kalezar, sakabanatuak 15, 20.170 Usurbil.

ETXEBIZITZA

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatuko nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut pre-miaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian , 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906 telefonora.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamentua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / www.upriding.com webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularren ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularren ematen ditugu euskaraz zein gaztekeraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.

- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- DBH 1eko ikasle bati etxean euskeraz klaseak emateko pertsona baten bila gabilta. 650953833
- Pertsona bat behar da etxeko lanak egin eta bi haur zaintzeko. Astelehenetik ostiralera goizeko 7tik, 12ra. Interesatuak deitu 618700479.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabilta. 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Urtarrilaren 21ean iluntzean 9 urteko mutiko baten bizikleta txuri-gorria galdu genuen frontoi atzean. Aurkitu duenak deitu 943360551.
- Pasa den astean haur bufanda bat galdu da. Urdin iluna eta bi marra txuri ditu. Ikastolatik plazarako bidean galdu da. Bilatu duenak 943370420 telefonora deitu. Mila esker.
- Graduatutako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657 633 461.
- Urtarrilaren 25ean txamarra bat galdu zen frontoi atzeko jolas-lekuan. Urdin ilun kolorekoa eta 10 urteko mutil batena. Aurkitu baduzu NOAUA!ra ekarri.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !!

Zorionak Julen!

San Balentin egunean bere lehen urtetxoa beteko du etxeko txikiak. Zorionak eta muxu handi bat!



Zorionak Goizane!

Azkenean iritsi da hainbeste espero zenuen eguna: otsailak 11. Ondo pasa zure 9. urtebetetzea. Zorionak eta muxu bat etxekoan partez.



Zorionak Ramon eta Simona familia-

ren partetik zuen urrezko eztaiak otsailaren 11n izango dituzuelako. Elkarrekin ospatuko dugunez muxu handi handi bat.



Zorionak Ianire!

Otsailaren 8an urtebetetze eguna ospatu zenuen. Muxu asko etxeko guztien partez!



Zorionak! Otsailaren

11n 45 urte beteko dira ezkondu zinetela. Besarkada bero bat eta muxu handi bat famili guztiaren partez.



JAIOTZAK

- Enaitz Rekondo Eizagirre
2006ko urtarrilaren 24an.

JAIOTZAK

- Maider Ainhua Morales Gonzalez
2006ko urtarrilaren 20an.

HILDAKOAK

- Jose Mari Maritxalar Lizaso
2006ko urtarrilaren 31n.



Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Zendoia

Kale Nagusia 10 - 943 37 40 71

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

UDARRREGI



**PARTAIDE
IKASTOLAK**

IKASTOLA



2-16 Urte bitarte:

- D eredua
- Ingelesa 4 urtefik aurrera
- Orientazio zerbitzua
- Informazio eta komunikazio teknologiak
- Jangela
- Garraioa
- Eskolaz kanpoko jarduerak



MATRIKULAZIO EPEA:
Otsailak 6tik 17ra (biak barne)

Dei ezazu telefono zenbaki honetara:
tel.: 943 36 12 16 Faxe: 943 36 37 43
usurbil@ikastola.net

autonomoentzako eta mikroenpresetarako
doako **mintegiak**

Donostialdea

otsailak 14

HERNANI

Hernani Institutua
(Karmelo Labaka)

Ordutegia:

18:00-20:00

Biltegien kudeaketa informatizatua eta eraginkorra

Zein da **egungo biltegien kudeaketaren egoera**? Zeintzuk dira **hobetzeko aukerak**? Zer lor dezakegu **merkatuak eskaintzen dizkigun tresnak** egoki erabiliz gero? Nola lortu **etengabeko inbentarioa** izatea **irteeren eta sarrerren erregistro** zorrotzarekin?

Informaziorik eta zerekin emateko:

943 747 314

www.miramondigital.com

cursos@miramondigital.com

Sinatuzaileak:



Gipuzkoako Foru Erkidegoa
Gipuzkoako Foru Legebiltzaria

euskadi

gipuzkoa

SPRI

Arloa: Enpresa Digitala



Miramon
Enpresa Digitala

Urtinea Lorategia



Frutarbolak aldatzeko sasoia **Aukera zabala:**

- * Bertako sagar batietateak
- * Udareondoak, geteziaondoak, aranondoak, intxaurreondoak, pikondoak kakalak, kiwiak...
- * Fruitu tokidun zuhaitzak: mugurdak, andertemahotsak, feijoa...

San Esteben sarea

☎ 943 382 255 Faxa: 943 386 054

E-mail: urtinea@euskalnet.net

